

**BILBOKO UDALAREN AUZOEN  
ALDEKO ITUNA**

*Bilbo, 2018ko Ekaina*

## **SARRERA**

Bilbon, gure hirian, hiria eta beraren auzoak berrizatzeko, aldatzeko eta hobetzeko egindako lan iraunkor baten ostean, Hiria Lurralde Orekarantz eramateak planteatzen dituen erronkez hausnartu behar dugu, erronka horiek definitzeaz eta bultzatzeaz batera.

Betiere auzo bakoitzaren berezitasunetik, indar eta intentsitate handiagoz, egindako ibilbidea abiapuntutzat hartuta.

Gure auzoetan bada jauzi kualitatibo bat espazio publikoaren berreskurapenean: parkeak, plazak, pasealekuak, kaleak, eta abar.

Gaur egun, irisgarritasuna lehenetsun bat da, eta familiako bizitza eta gozamenerako espazio hurbilak uztartzea, berriz, garatze bidean dagoen lehenetsunezko helburu bat.

Beste alde batetik, argiteria, garbiketa, lorezaintza, saneamendu eta ur-horniduraren zerbitzuak egunero eta modu integralean hobetzea kalitatezko errutina bat da.

Herritarrak, kolektiboak eta -oro har- gizartea euren auzoen hobekuntzan parte hartzen ari dira: hori errealitate bat da.

Nolanahi ere, badakigu alor horretan sakondu egin behar dugula tresna erreal eta birtual hobeekin, guztiok gure ekarpena egin ahal izan dezagun prozesu osoan.

Hori guztia lortzeko, prozesua pertsonengandik eta pertsonentzat bultzatu behar dugu beti, hau da, pertsonak ekintzaren erdigunean jarrita.

Auzoek, gure hiriko bihotza diren aldetik, hobetzen jarraitu behar dute, eta hori, gure ustez, hiru bektoretatik egin behar da beti: Hiri-kohesio Fisikoa, Gizarte-kohesioa eta Kohesio Ekonomikoa.

Eta, horretan guztietan, indartu egin behar dugu eguneroko beharretan oinarrituta hasi genuen bidea.

Testuinguru horretan, Bilboko Auzoen aldeko Itunaren erronka plazaratzen dugu; bertan, udal sail guztiak bilduta, oinarrizko adostasun politikoa garatu nahi dugu jadanik hasitako bidean planteatzen diren lehentasunezko lan-ardatzen inguruan, hau da, auzoen identitate propioa mantentzea ahalbidetzen duen hiri kohesionatura daraman bidean planteatzen diren lehentasunezko lan-ardatzen inguruan.

Badakigu, ondo jakin ere, auzoek hiria konfiguratzeko dutela, baina itun honen bidez auzoen inguruko ikuspegia zehaztu nahi dugu, auzo bakoitzaren identitatea hiri-dinamikan txertatuz.

Aurrera jarraitu nahi dugu hiriaren orekarantz, auzo guzti-guztietan, baina aurrerapen hori auzo bakoitzaren behar eta errealitatera egokituz.

Horretarako, auzoei buruzko azterketa konpartitu bat hartu nahi dugu abiapuntutzat, lehentasunezko lan-ildoak eta horien geroko garapenaren etapak adostasunez definitzeko.

### **Lurralde-oreka Integrala; azken helburua**

Badakigu gure azken helburua Lurralde-oreka lortzea dela, eta badakigu, halaber, horretarako Kohesio hirukoitzaren alde egin behar dugula:

- Gizarte-kohesioa
- Hiri-kohesioa
- Kohesio ekonomikoa

Horrenbestez, oinarri horren gainean, lan-ildo adostuak definitzea ahalbidetzen duen bide bat markatzen dugu, horren ostean gure hiriko auzoetara zuzendutako neurriak garatzeko, helburu honekin: euren identitate eta balioei eutsita, auzoak batuago egotea hirigintza, gizarte eta ekonomiaren ikuspuntuetatik.

Gure nahia da hiriko auzoek hiriaren garapen integralean parte hartu dezatela eta garapen hori bultzatu dezatela, eredu orekatuago eta aurreratuago baterantz aurrera egiteko, Auzoen Itun honen bitartez.

## **HELBURUAK**

Itunaren helburu orokor batetik abiatzen gara: Auzoen Oreka behin betiko lortzeko moduari buruzko Adostasuna lortzea. Hortaz, Adostasunean oinarrituta, 12 helburu planteatzen ditugu:

- 1. Gure auzoen garapen orekatu eta jasangarria bermatzea,** pertsonen eta haien errealitate zein identitatearen errespetutik abiatuta, **Kohesiorako Plan Estrategiko baten** bitartez.
- 2. Hiri inklusiborantz aurrera egitea, Irisgarritasun Unibertsala lehentasun moduan bultzatuz,** udal eremu guztietan modu koordinatuan arituz, eta horren garapenaren alde eginez gainerako eremu publiko eta pribatuetan.
- 3. Esku-hartze Bereziko Eremuen berroneratzea lehenestea,** beharrezkoak diren aldetara egokituz, eta sentikortasunez jokatzuz beharrezkoak diren hobekuntza sozial eta fiskoen aurrean.

4. Auzoak banatzen dituzten azpiegiturek sortutako **barrerak ezabatzearen alde egitea**, instituzioen arteko lankidetzaren oinarritzat hartuta.
  
5. Auzoetako **hurbiltasun-ekipamenduen sarearen garapena bultzatzea**, zerbitzu aurreratuak –sozialak, kulturalak, sanitarioak, eta abar- hobetu ahal izateko, behar errealei eraginkortasunez erantzuteko ahalmena segurtatuz, udal eremu guztiak koordinatuta, eta horren garapenari lagunduz gainerako eremu publikoetan.
  
6. **Udal zerbitzu aurreratuaren eredu berri bat martxan jartzea** – zerbitzu malguak, teknologikoak eta inklusiboak-, horren bidez sustatu eta akuilatze kolektibo, pertsona eta bizitza sozial eta kulturalaren espazio guztien parte-hartzea.
  
7. **Belaunaldien arteko berdintasunezko eta askotariko lankidetzaren alde egitea**, auzoen eta haien bizitza sozial eta kulturalaren garapen bateratuaren gakotzat hartuta. Pertsona guztiek eraiki behar dituzte euren errealitate hurbilenean oraina eta geroa.
  
8. **Gizarte-kohesioari lurralde eta kulturaren ikuspegitik heltzea**, elkarren arteko topaketa eta bizikidetzaren sustatzen dituzten azpiegitura eta espazio egokiak sortuz; horrekin batera, partaidetzazko giro ludikoa eta jai-giroa ere bultzatu behar ditugu, gure ondare kulturaletik.

9. **Hiri-garapen jasangarria bultzatzea, gure aberastasun kulturala errespetatuz,** Goiko auzoak, Itsasadarra eta haren ertzetako auzoak lotzen dituen Eraztun Berdearen bitartez, biodibertsitatea sortuz, ingurumena sustatuz eta haren inguruan sentsibilizatuz, hiri-, gizarte- eta ekonomia-kohesioa lortzeko aukeratzat hartuta.
  
10. **Jardun ekonomikoa indartzen eta bultzatzen laguntzea, auzoetatik eta auzoentzat zein hiriarentzat.** Hurbiltasun-merkataritza sendotik abiatuta, enpresa-ekintzailtzako eta tokiko enplegua sortzeko prozesuetan integratutako hiri-jarduera ekonomikoak ezarriz, auzoen jarduera ekonomikoaren aktibazioaren gakoak bultzatuz.
  
11. **Gure auzoetako bizilagunen Osasun arloko ekitateak sustatzen laguntzea,** osasuna balio gisa txertatuz udal jardunaren eremu guztietan.
  
12. **Udal sailen arteko koordinazioa eta lankidetzaren hobetzea,** beharrezkoak diren baliabideekin, oraingo arazoei erantzunez eta plan honen garapena eta auzoetako politiken zeharkakotasuna ahalbidetuz Udalaren estrategietan.

## **EKINTZAK**

Azken helburua Lurralde-kohesio Integrala lortzea dela kontuan hartuta, Kohesio hirukoitzaren alde egiten dugu: Gizarte-kohesioa, Hiri-kohesioa eta Kohesio Ekonomikoa, eta hori lortzeko proposatzen ditugu 34 neurri aztertzea, eztabaidatzea eta hobetzea, lehentasunezko neurriak definitzeko eta horiek geroagoko garapenaren metodologia ezartzeko.

## **HIRI-KOHESIOA**

1. Udal talde tekniko bakar bat sortzea Irisgarritasun Unibertsalaren plangintza, interlokuzio eta garapenerako, ikuspegi fisiko, tekniko eta komunikatiboetatik.
2. Esku-hartzearen lehentasunak ezartzea, AEBMIParekin bat etorrituz, jarduera fisikoak, elementu mekanikoak eta garraio publikoa uztartuz eta dagokien aurrekontua bideratuz.
3. Irisgarritasun Unibertsala etxebizitza eta saltokietan lortzeko laguntza tekniko eta ekonomikoa indartzea. Horretarako, aurrekontu-zuzkidura handituko dugu, beharrezkoa izanez gero, eta baita espazio publikoaren egokitzapena ere, Irisgarritasun Unibertsala ahalbidetzeko.
4. Azpiegitura handiek auzoen artean sortutako azken barrerak ezabatzearen alde egitea.
5. Lehentasunezko helburuak adostea esku-hartze bereziko eremuetan: Arestizabala, Peñaskal, Abasolo, eta abar, jardunaren lehentasunak Barruti Kontseiluen bidez ezarriz eta horretarako behar diren aurrekontu-partidak bideratuz.

6. Bilborako Etxebizitza Plan Zuzentzaile bat garatzea. 2019ko lehenengo hiruhilekoan definituko da, eta Hiru Antolamenduko Udal Plan Orokor berria eta Eusko Jaurlaritzaren 2018-2020rako Etxebizitzaren Plan Zuzentzailean adierazitako lehentasunak jasoko ditu. Plana garatzeari begira, Udala lankidetzan arituko da Eusko Jaurlaritzarekin proiektuaren fase guztietan. Eta, bereziki - beste neurri batzuen artean-, infraetxebizitzak ezabatzeko, eraikitako eraikinetako irisgarritasuna eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko pertsona gazteei etxebizitza eskuratzeko eta auzoetan sustraitzen laguntzeko neurriak jasoko ditu.
7. Oinezko pasabideak sortzea goiko auzoen eta itsasadarraren ertzetako auzoen artean, Itsasadarraren, Erdigunearen eta Eraztun Berdearen bitartez, Plan Orokorren Aurrerapenarekin, Mugikortasun Jasangarrirako Planarekin eta Bilboko Aukeremuen, Baliabide Mekanikoen eta Irisgarritasunaren Planarekin bat etorritik, oinezko sare orekatua garatuz.
8. Hiriko mugikortasun-zerbitzu publikoen intermodalitatea eta konexioa sustatzea, haien erabilera sustatuz.
9. Itsasadarraren ingurumen-lehengoratzeko prozesua bultzatzea, beraren ertzetako auzoei, segurtasunari eta gozamenaren bultzadari arreta berezia zuzenduz.
10. Zaindu beharreko lehentasunezko esparruen biodibertsitatea katalogatzea eta garatzea.
11. Galtzadak Hobetzeko Plan bat ezartzea eta 6 hilabetean erredaktatzea.



## **GIZARTE-KOHESIOA**

12. Udaltegiak bultzatzea.
13. Gizarte- eta osasun-ekipamenduak dimentsionatzea eta bultzatzea, alor horietan eskumena duten administrazio publikoen eta biztanleriaren bilakaerarekin bat etorriz.
14. Adineko pertsoneri zuzendutako gizarte-ekipamenduak bultzatzea, bizikidetza eta arreta aldetik dituzten beharrei erantzuteko.
15. Izaera plural eta parte-hartzailea duten auzo-jaiak bultzatzea, aurrekontu-zuzkidura eta espazio publikoko azpiegiturak areagotuz, aisialdia sustatzeari begira.
16. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen inklusibotasunaren alde lan egitea auzo guztietan, kultura, aisialdi eta kirol inklusiboak sustatuz.
17. Jarduera kulturalen garapena auzoetan sustatzea, artean, musikan, arte eszenikoetan eta kulturaren beste edozein adierazpidetan parte hartzea ahalbidetuz.
18. Espazio publikoko ekipamendu eta azpiegituren sarea gazteekin batera definitzea eta garatzea, haien aisialdia sustatzeko.
19. Haurrak euren auzoen hobekuntza eta garapenean inplikatzeko eta parte-hartze hori eskola-proiektu gisa txertatzea.
20. Tokiko proiektu eta ekipamenduen garapena auzoetan sustatzea.

21. Hiri Ortuen Programa zabaltzea, jarduera hori jasangarritasunaren eta gizarte-inklusioaren ikuspegitik garatzearen alde eginez ahal den auzo guztietan.
22. Kirol Espazio Balioaniztunen Plan bat definitzea urtebeteko epean, plana betetzeko beharrezkoa den aurrekontu-konpromisoa zehaztuz. Horren barnean, erabili gabe dauden ikastetxeak aztertuko dira, eta, hala dagokionean, haien jabari publikoaren desafektazioa egingo da.
23. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin lan egitea, ikastetxe jakin batzuen patioak auzokideentzat ireki ahal izateko.
24. Haurrentzako Espazio Estalien Plan bat garatzea, barruti guztiek horrelako bi espazio izan ditzaten, gutxienez, euren jarduera-eremuan.
25. Ekipamendu publikoen eredu berriak garatzea, ordutegi (asteburuak, funtzionarioen lan-ordutegitik kanpo,...) eta garai berriei (azterketa, oporrak...) egokituta.
26. Teknologia berrien ezarpenean aurrera egitea, informazio, kudeaketa eta parte-hartzerako bide gisa eta Udalarekin komunikatzeko tresna gisa.
27. Ikastetxeekin eta Tokiko Eskola Agendarekin garatzen diren programak areagotzea.
28. Auzoen lehentasunezko helburuak auzoetatik definitzea eta proiektu teknikoaren eta herritarren taldeen bidez lantzea, Sektore eta Barruti Kontseiluekin koordinatuta eta hauen zeregina osatuz.

29. Belaunaldi ateko memoriaren bankuaren proiektua garatzearen alde egitea, gure adinekoen ikuspegi eta memoria historikoa hiriaren orainaldian eta etorkizunean txertatuz, haren kontserbazioa eta transmisioa segurtatuz.
30. Auzoa Osasuna sortzen duen tresna gisa bultzatzea, osasunaren arloko aktibo gisa funtzionatzen duten osagaien aitortza eta sustapenaren bitartez.

### **KOHESIO KOMERTZIAL ETA EKONOMIKOA**

31. Hurbiltasun-merkataritzarako estrategia integral bat bultzatzea, auzo eta barruti bakoitzaren profil eta ezaugarrien arabera, Merkataritzaren Plan Estrategikoaren garapena barne sartuta.
32. Tokiko enpresa-garapenaren eta enpresa-garapen zentralaren konbinazioa indartzea, hiri-plangintza eta –berriztapen prozesuak aprobetxatuz, ardatz eta korridore komertzialak definituz eta esku-hartze integral eta multisektorialak garatuz.
33. Enpresa-ekinzailetza jasangarria Eraztun Berdean bultzatzea, Goiko Auzoentzako enplegu-potentzial gisa.
34. Enpresa-ekintzailetzaren aukerak auzoetan aztertzea eta sustatzea, haien profil eta aktibo propioak kontuan hartuz.

**EAJ-PNV**

**PSE-EE**

**Juan Mari Aburto**  
**Bilboko Alkatea**



**Bilbao**  
UDALA  
AYUNTAMIENTO